


Euskaraz bizitzeko 11 urrats

EUSKARA

Taupada

kolektiboa



Euskaldunoi euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea dagokigu, eta ELAk beste edozein eskubide zibilen pare nahi du hau ere. Euskaraz bizitzea ez da norbere hautu hutsa, gizarte honen barruan gauzatu behar dugu, eta gizarte honetan hizkuntzek izan dezaketen garapenaren baitan.

Merkatu ekonomia honetan gaztelaniaren merkatuak euskara erabat zokoratu du, euskarazko produkzioak ezin du erdararekiko merkatuarekin lehiatu instituzioen inplikazio eta laguntzarik gabe. Posizio hegemoniko horretatik ulertu behar ditugu alderdi unio-nisten aldarriak, gaztelania zein frantsezaren pribilejio egoera mantentzea dakarten aldarriak hain zuen. Hegemonia ez eztabaidatzea aldarrikapen erabat identitarioa da, Iruñako udalean bezain nabarmen ikusten ez den arren.

ELAren iritziz euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea gauzatu ahal izateko instituzioen inplikazio zuzena ezinbestekoa da eta hizkuntzen garapena baldintzatzen dituzten eremu guztiak hartu behar dituzte kontuan, norbanako eskubideak erabaki kolektiboen bitartez bakarrik gauzatu ahal izango dira eta. Besteak beste hurrengo neurriak ezinbestekoak dira gure ustez euskaldunok, erdaldunek bezala, gure hizkuntza eskubideak bermatu ditzagun:

1. Euskal Herriko administrazio nagusietan Euskara lehendakariordetza bat izendatu dadila, zeharka politika guztietan euskararekiko eragina ebaluatu eta horren arabera politikak egin daitezzen.

2. Nafarroan eta Euskal Herri kontinentaleko lurraldeetan **euskararen ofizialtasun osoa** onar dadila.

3. Euskara ikasteko doakotasuna ziurtatzea 2020 urterako, doakotasun honek euskaltegien gastua eta euskara ikasteko denbora aurreikusitako behar ditu.

4. Lan mundua euskalduntzeko laguntza eta baliabideak esleitzea:

4.1. Administrazio publikoen zerbitzura ari diren enpresetan lizitazioetan euskaraz lan egiteko eskubidea eta zerbitzuak euskaraz emateko betebeharrak bermatu daitezela. Egun enpresa horietan lanean ari diren langileentzako trantsizio programak ezartzea, baita antzinakotasun eta esperientziaren arabera salbuespenak ere.

4.2. Lanorduetan euskara ikasteko aukera izan dadin dirulaguntzak izatea, ulermen maila lortu arte, behintzat, liberazio aukerak egin daitezzen.

4.3. Euskara Planak aurrera eramateko dirulaguntzak handitzea (errotulazio, komunikazio bide, barne-hiztegiak egiteko, motibazio neurrietarako...).

5. Euskara ofiziala den lurraldeetan administrazioetan hurrengo 15 urteetako erretiro prozesuak erabiltzea 15 urtetan zerbitzu guztiak elebidunak izango direla bermatzeko eta langile guztiak, behintzat, euskara ulertzeko gaitasuna dutela ziurtatzeko:

5.1. Administrazioan lehen aldiz lan egingo duten langile guztiei euskararen ulermena exijitzea, nahikoa profesional euskaldunik ez dagoen lanbideetan lanean hasi ondorengo programa individualizatuak ezartzea helburu hori bermatzeko.

5.2. Administrazioetan orain arte lanean aritu diren langile guztientzako trantsizio prozesuak, antzinakotasun eta adinaren arabera salbuespenak aurreikusiz, beti ere 15 urteko epe horretan azaldutako helburu hori betetzeko.

5.3. 15 urtetan langile guztiak euskaraz lan egin ahal izango dutela bermatzea eta, era berean, zerbitzu guztiak euskaraz eman ahal izango direla ziurtatzea.

6. Euskara orain arte ofiziala izan ez den lurraldeetan, aurreko irizpideak denboran malgutu egingo ditugu, baina **zentzu berean urratsak eman**

behar dira epe zehatzak jarrita, hasteko euskarazko zerbitzua esparru guztietan bermatzeko eta, ondoren, administrazioetan euskarazko barne-funtzionamendua langile guztientzat bermatuta.

7. Itzulpen zerbitzu publiko bat sortzea irabazi-asporik gabeko entitate guztion eskura egongo dena, gutxieneko baldintza batzuen arabera bilera elebidunak bermatzeko.

8. Euskarazko sortzaileen estatusa, ikusgarritasuna eta bizimodu duina bermatzeko politikak.

9. Kontsumitzaileentzako eskubideen artean euskarazko zerbitzuak euskaraz jasotzea ezartzea eta tamaina batetik gorako denda guztietan euskarazko zerbitzua bermatua izatea derrigorrezkoa izan dadila eta obligazio hau betetzen ez duten enpresentzako zigorrak ezartzea, eta hortik beharrezkoetan nolabait euskarazko zerbitzua ematen dutenentzako sariak izatea.

10. Komunikabideei begirako estrategia orokor bat ezartzea:

10.1. Komunikabide publikoetan euskara eta euskal kultura ardatz bihurtzea, ETB1 eta Euskadi Irratiak hartu behar dute finantziario nagusia.

10.2. Espazio erradioelektrikoaren arautzea euskararen gutxieneko presentzia ziurtatzeko.

10.3. Komunikazio bide berrietarako estrategia eta finantziarioa, horietan ere euskarazko sorkuntza erreferentziala izan dadin euskal gizartearen.

10.4. Euskarara bikoizketa eta itzulpena bermatu erreferentziatzeko gizarte produktuentzat, erdaraz bezala euskaraz kontsumitzeko aukera izan dadin.

11. Hezkuntza politikak:

11.1. EAEn hizkuntza ereduak gainditzea eta murgiltze ereduak izan dadila finantziario publikoak jasotzen duen bakara. Nafarroa eta Iparralde A ereduak izan dadila epe laburrean gutxienekoa.

11.2. Aisialdirako baliabideak ezartzea aisialdia guztia euskaraz ere egon dadin. Berezi, administrazio eta eskolek azpikontratatuak zerbitzuetan euskarazko komunikazioa bermatu dadila eta euskara ardatz izan dadila gazteekiko komunikazioetan.

11.3. Beste lurralde batzuetatik helduberrientzako programa bereziak eta baliabideak ezartzea euskara ikasketak egiteko moduan egon daitezzen.